

2000ko ABUZTUAREN 2ko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, bi milako abuztuaren bian, gaueko bederatziak direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ana Ederra Irurzun, Antton Balerdi Garmendia, Lontxo Goikoetxeaundia Martinez; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA:

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

2.- LANGILEEN FUNTZIONARIZAZIOA

Lizartzan, bi milako ekainaren bostean, Lizartzako Udaleko Lan-Kontratuko langile finkoek funtzionario bihurtzeko prozesuaren baitan, eta ekainaren bian eginiko merezimenduen balorazio epaimahaiak hartutako erabakiaren arabera, zera

PROPOSATZEN DA:

Lizartzako Udaleko langile laboral finkoak izan diren, eta hautaketa prozesua gainditu dutenak, Karrerako Funtzionario izendatuak izan daitezela proposatzea.

TALDEA	ESKALA	AZPIESKALA	PLAZA	TITULAZIOA	KARRERAKO FUNTZIONARIOAK
D	Administrazio Orokorra	Laguntzailea	Administrari Laguntzailea	Eskola Graduatua edo LH1	INMACULADA GARAIKOETXEA GARMENDIA
B	Administrazio Berezia	Teknikoa	Gizarte Laguntzailea	Diplomaduna	MARGA OTEGI SEGUROLA
D	Administrazio Berezia	Zerbitzu Bereziak	Ofiziala	Eskola Graduatua edo LH1	JOAKIN LULOAGA ALTUNA
D	Administrazio	Laguntzailea	Liburutegiko	Eskola Graduatua	AINHOA GARAIKOETXEA ALTUNA

	Orokorra		Laguntzailea	edo LH1	
E	Administrazio Berezia	Zerbitzu Bereziak	Garbitzailea	Eskola Ziurtagiria	MERTXE LULOAGA ALTUNA

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

3.- 2000KO AURREKONTUAREN KREDITU ALDAKETA

KREDITU-GAIKUNTZEN ERREGIMENAREN BIDEZ EGIN BEHARREKO KREDITU-ALDAKETARAKO 2 ZK. ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA

Lizartzako Udal honen 2000ko Aurrekontuaren barnean Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez izapidetzen den Kreditu-Aldaketarako espedientearen berri eman ondoren.

Idazkari-Kontuhartzaileak jaulkitako txostena irakurri ondoren, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion indarreko araudiari egokitzen zaiola eta, hortaz, bere aldeko txostena ematen baitu.

Onespena proposamena formulatzen duen Ogasun Batzordeak emandako aldeko irizpena irakurririk.

ERABAKI DA:

- 1.- Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez egin beharreko Kreditu-Aldaketarako espedientea onestea, 6.391.289,- pezetako zenbatekoaz, espedientearekin batera jasotako egoera-orriskari ageri den kontzeptu eta partiden xehekapen berarekin.
- 2.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da onetsitako Kreditu-Aldaketa Fondoan Kontuhartzailletza Zerbitzuek Kontabilitatean berehalako ondorioekin isla dezaten.

4.- IGOKA ESPEDIENTEA. KONEJUEEN BORDA

IKUSIRIK.- Inaxio Zeberio Artola Jaunak aukeztu duen, herri honetako Asura Etxeberri Baserriaren ondoan, Koneju Borda jartzeko baimena eskaera, eta horri buruz eman diren tramiteak.

IKUSIRIK.- Iharduera jarri nahi den eraikuntza, 1961eko Azaroaren 30eko Erregelamenduak dioenarekin, Udaleko Arauetara egokitu, eta Arau Subsidiarioetako hirigintz kalifikazioarekin ados dagoela.

IKUSIRIK.- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, aldeko txostena luzatu duela.

Horren arabera, zera proposatu da:

- 1.- Inaxio Zeberio Artola Jaunak aukeztu duen, herri honetako Asura Etxeberri Baserriaren ondoan, Koneju Borda jartzeko eskaturiko baimenari, aldeko txostena luzatzea.
- 2.- Ihardueraren ezaugarrien arabera, KONEJU BORDA kalifikazioa proposatzen da.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

5.- TOLOSALDEA GARATZEN

Tolosaldea Garatzen, S.A.ren kapital sozialean Udal honek duen partaidetzaren arabera eta urteko ekarpenen bidez finantzatzen diren aurrekontuei dagokienez, 1999ko ekitaldirako eta ondorengoetarako, Bilkura Nagusi honetako akordioaren arabera:

Tolosaldea Garatzen, S.A.ko Administrazio Kontseilua BAIMENTZEN DELA, aipaturiko Kontseiluaren eremuan, ekarpenen azken helburua erabakitzeko, bertako ohizko finantzaketa edo proiektu jakinen

finantzaketarako, proiektu batzuen finantzaketa hurrengo ekitaldira atzeratzeko, beti ere eginiko ekarpen kopuruaren arabera.

6.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

JULEN ARRATIBEL SOTO

Intxaurrondo Baserria eraberritzeko baimena, aurkeztutako proiektuaren arabera. Baldintzak:

Leiho zulo berriak irekitzen direnez egungo egoera eta nola geratuko den agertzea beharrezkoa izango da.

Kanpoko zurgintzazko elementuak egurrezkoak izango dira.

Eraikuntzak egun dituen erabilerak gordeko ditu.

ESKAERA SINATZEKO AHALMENA

Apirilaren 2ko Errejimen Lokaletako Oinarrien 7/85 Lege Arautzailearen 21.3 artikulua, apirilaren 18ko 781/86 E.D. Legegilearen 22. Artikuluak eta azaroaren 28ko Errege Dekretuaren 43. eta hurrengo artikuluek aurrikusten dizkidaten ahalmenekin bat etorritik, 2000ko Uztailaren 10ean honako ebazpena luzatu du:

- 1.- Udal txikietako garapen sozioekonomikoa ikertzeko dirulaguntza eskaera sinatzeko ahalena, Lurdes Altuna Arritegi Zinegotzian delegatzea.

CARMELO GOIKOETXEA GOIKOETXEAUNDIA

Arostegi Baserrian oilo leku eta oilasko lekua jartzeko baimena PREKARIOAn ematen zaio.

7.- URJENTZIZKO GAIAK

Alkateak, Arkitekto berriaren kontrataziorako proposamena eta, Insalus S.A.k eskatutako lehen erabilpenerako baimenari buruzko txostena, atzo iritsi zirela esan du eta nahiko presako gaiak direnez eta hurrengo baterako uzterik ez dagoenez, bilkura honetan urjenziz tratatzea proposatu du.

Proposamena aho batez onartua izan da.

ARKITEKTOAREN KONTRATAZIOA

Oraindaino lanean aritu den, Jose M^a Bravo Albizu Arkitektoak utzi egin duenez, berri bat kontratatzeko egon diren elkarrizketen arabera, bi proposamen egon dira:

LUIS PABLO URQUIZU ITURRARTE, orduko, 5.500 peztako prezioarekin.

AINARA SAGARNA ARANBURU, orduko, 4.000 + 16% BEZ peztako prezioarekin.

Bi proposamenak aztertu ondoren, AINARA SAGARNA ARANBURU Arkitektoa kontratatzea, aho batez onartu da.

INSALUS S.A. – INDUSTRI PABEILOIAREN LEHEN ERABILPEN BAIMENA

F. Javier Malcorra, Insalus S.A.ren izenean, U-2 Alorreko, A Partzelan kokatzen den, 1998ko Abenduaren 11ko Alkatetzaren Dekretuaren bidez emandako obra baimenaren arabera eraikitako Industri Pabeiloiaren Lehen Erabilpen baimena eskatu du.

Udaleko Teknikoek aldeko txostenak luzatu dituzte.

TRLS.ko 242.2 eta RDU.ko 1-10 artikuluek diotenaren arabera, PROPOSATZEN DA:

Udal honek dituen konpetentzien barnean, eta beste Erakundeei dagozkienaren kalterik gabe, eskatutako lehen erabilerako baimena ematea.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko bederatzit'erdiak direnean.